

Hezkuntza moldeak familian

Molde zehatz batek definitzen du gurasoen eta seme-alaben arteko harremana eta hori gauza askotan islatzen da: mugak eta arauak jartzeko eran, saritu edota zigortzeko eran eta komunikatzeko eran.

Lau hezkuntza molde daude (autoritarioa, permisiboa edo babesleegia, demokratikoa, epela). Horrek ez du esan nahi familia bat molde horietan batean bakarrik kokatzen denik. Aitzitik, lau moldetako baten ezaugarriak besteenak baino gehiago agertzeko joerak definitzen du familia-nukleo bakoitzaren estiloa. Familientzako oso lagungarria izan daiteke hezkuntza-molde desberdinen ezaugarriak ezagutzea; modu horretan molde bat edo bestea erabiltzearen ondorio negatibo nahiz positiboak aurreikus ditzakete eta seme-alabekin nola joka dezaketen jakin ahal izango dute.

Molde batera edo besterako joera, desberdina izan daiteke, adin desberdinetan guraso eta seme-alaben arteko elkarrekintzaren arabera da, beharizan berriak sortzen diren heinean. Hezkuntza moldeak:

FAMILIA AUTORITARIOAK: Familia horietan ez dago negoziatzeko aukerarik arau zorrotzak daude, seme-alabei gehiegi eskatzen zaie, (espektatibak, kontrola), saritu baino gehiago zigortu egiten da eta pertsona kritikatzeko da (leloa zara) eta ez pertsonak egiten duena. Guzti horrek, hurrengan autoestima eta autonomia baxuak, inpotentziak eragindako haserrealdiak, eta jokabide erasokor eta otzanak eragiten ditu.

FAMILIA PERMISIBOAK EDO BABESLEEGIAK: Oso gutxi exijitzen dute eta seme-alabak gehiegi babesten dira, ez zaie bizitzako zailtasunei aurre nola egin behar zaien erakusten; seme-alabak zama horretatik libratu egiten dituzte. Uste dute seme-alabak zintzoak direla eta badakitela zer egin behar den eta eskatzen duten guztia eman behar zaiela, batez ere, helduek eduki ezin izan zuten guzti hori. Giro honen berezko ezaugarria askatasuna laguntza emozionalarekin baterakoa da. Ez diete seme-alabei arauak eta mugak jartzen, lan hori eta heziketa besteen eskuetan uzten dute. Guzti horrek, segurtasun eta jarraikortasun eza, frustrazioarekiko tolerantzia baxua..... dakar.

FAMILIA DEMOKRATIKOAK: Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan elkarrenganako errespetua eta kooperazioa dira nagusi. Gurasoek badakite okerreko erabakia har dezaketela. Seme-alabek autonomiaz ikastea nahi dute, norberaren alde hoberena ateratzeko. Laguntzen diete baztertzearren eta gehiegizko babesaren artean distantziakide diren konponbideak bilatzen eta uste dute arazoak euren gainditze pertsonalerako erronka bat direla.

FAMILIA EPELAK: Ez dituzte umeen premiak jasotzen, axolagabeak dira afektu ikuspuntuari dagokionez. Ez dute modu koherentean diziplina motarik praktikatzeko. Guzti horrek, jokabide antisozialak eta dependentzia emozionala sortzen du.

Laburpena

Ez dago hezkuntza perfekturik, batik bat, errezeta gisa erabiltzeko den arau-multzotzat hartzen badugu. Familia barruan, hezkuntza demokratikoa bultzatu nahi badugu oso kontuan hartzekoa da hurrei era egokian eta argian komunikatu behar zaizkiela arauak; hori horrela egiteak hurren hezkuntza eta hazkuntzan parte-hartzea ahalbidetuko du, eta desberdintasunak eta ikuspuntu desberdinak errespetatuko direla bermatuko du. Garrantzitsua da, maitasuna eta exijentzia orekatzea eguneroko arazoei aurre egin ahal izateko.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández

Dr. Juan Luís Martín Ayala

ETXADI

Familia-Psikologia Unibertsitate-zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia